

KONTROL MOZIOA

NAFARROA HIRIBIDEAN MOZTUTAKO ZUHAITZEZ

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak eta Arantza Gonzalez Garcia Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten dute. Mozioa 2024ko otsailaren 12an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 22ko astean, Manteon egin asmo den Basque Culinary Center-en eraikuntzaren ondorioz, Nafarroa hiribidean dauden zuhaitzak moztu ziren. Bizilagunen haserrearekin batera, jakin dugu moztutako zuhaitzak ez direla sartzen GOEaren obra lizentzian aurreikusitako eremuaren barruan. Hori gutxi balitz bezala, aipagai dugun plan bereziaren *Ingurumen Dokumentu Estrategikoak (Documento Ambiental Estratégico)* seinalatzen du partzelaren ertzeko begetazioa babestea lehentasunezkoa dela. Beraz, ingurumen txostena errespetatu ez dela ulertzen dugu. “Obraren prozesu osoan herritarren segurtasuna eta Nafarroa hiribideko espaloitik pasatzeko modua bermatzea, batetik, eta landareen egoera eta kalitatea, bestetik” lirateke zuhaitz mozketa horien arrazoiak. Baina ez al dago segurtasuna bermatzeko bestelako alternatibarik? Zuhaitz guztien kalitatea al da txarra, guztiak moztu behar izateko?

Antza, Nafarroa hiribideko 18 zuhaitz horiek bota ostean, sustatzailea, Basque Culinary Center, arduratuko da Nafarroa hiribidea landareztatzeaz. Era berean, Nafarroa hiribide osoan zeuden 42 zuhaitzak birlandatzea ere aurreikusi da. Ordea, ez dakigu sustatzaileak hartutako konpromisoa non jasotzen den, konpromiso horren garapena nolakoa izango den eta hartutako konpromiso horren zein jarraipen egingo duen Udalak.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duten zinegotziek aurkeztutako
KONTROL MOZIOA:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari sustatzaileak birlandatzea egoki egingo duela bermatzeko neurriak har ditzala, horretarako kontrol estua eginez.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari moztu diren zuhaitz guztiak moztea beste alternatibarik ez zegoela justifikatzen duen txostena aurkez dezala eta, era berean, birlandaketaren plan zehatza eska diezaiola Manteoko lanen sustatzaileari eta hura parteka dezala udal talde guztiekin.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari plan bereziaren Ingurumen Dokumentua bete eta betearaz dezala Manteoko gaur egun lanetan.

Donostian, 2024ko otsailaren 16an

Izar Hernando Ibero
EH Bilduko zinegotzia

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostiako zinegotzia